

LIBURUTEGIAK

2019



SARRERA



Adiskide eta lankideok:

[“Bizia ez da nehoiz egoiten bere dohain betean, aldakorra da, nola eguna goizetik arrats artean” abestu zuen aspaldi Xalbador bertsolariak, eta gauza bera gertatzen da urteekin ere]. Hori idatzi nuen 2020eko martxoaren 3an Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen 2019ko Liburutegiak aldizkari honen sarrerarako. Aurreko urteko balantzea nuen nik buruan, ez hasi berria zen urtea. Nabarmen geratu da bi hilabete hauetan egia handia abestu zuela Urepeleko kantariak. Koronabirusaren pandemiak, mina eta heriotza zabaltzeaz gain gure artean, hankaz gora jarri dituelako gure aurreikuspenak eta kolokan orain arteko bizimodua. Gutako gehienok etxean geratu behar izan dugu, askok etxetik ari gara lanean eta osasun zerbitzuetako langileei eta hornikuntza eta logistikakoei esker lortu dugu aurrera ateratzea.

Oraindik amaitu ez den salbuespeneko egoera honek izan ditu, dena den, irakaspen baikorrik: gizarte osoak gaixoezko erakutsi duen elkertasuna da nagusiena. Kultura munduak hondamendi handia bizi izan du, bereziki jendearen aurrean eta jendearen partehartzearekin sortu eta garatzen diren kultur jarduerak; baina, era berean, agerian geratu da kultur adierazpenen garrantzia hobeto bizitzeko eta bizitzari zentzua emateko. Liburutegiek, nabarmena da, oso lan garrantzitsua egin dute (duzue) denbora epe honetan hori horrela izan dadin. Liburuzain askok jarraitu duzue lanean atea itxita eduki arren, Internetek eskaintzen dituen aukerak

baliatuz eta asko izan zarete Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuari zuon laguntza eskaini izan duzuenak eLiburutegiak hobeto funtzionatu zezan eta herritarrek zerbitzu hori erabil zezaten bere aisialdia eta kultura gosea asetzeko. Guztioi, eskerrik asko.

Ez dakigu zenbat denbora gehiago iraungo duen bizi dugun pandemia honek, baina badakigu hainbat gauza aldatuko direla, hasiera batean behinik behin. Herritarren joan-etorriak murriztuko dira, jendea biltzeko aukera mugatuko da eta baliabide digitalen erabilera izugarri igoko da, besteak beste. Horrek guztiak eragin zuzena izango du liburuaren eta liburutegietan. Ezinbestekoa izango da, beraz, liburu maite dugun guztiok hausnarketa sakon bat egitea, egoera berrira egokitzeko ez ezik, indartuta ateratzeko ere. Lan horretan bidaide nahi zaituzte Eusko Jaurlaritzak.

Badira, dena den, premiazko zereginak. Lehenik eta behin, liburutegiak irekitzea. Aldizkari hau zuon eskuetara heltzen denean, beharbada, posible izango da zeregin batzuk, mailegua esate baterako, berreskuratzea, baina euskal erakunde publikoen nahia da kultura azpiegitura guztiak batera zabaltzea. Ikusiko dugu ea posible dugun. Hori gertatzen denean, guztiok, liburuzainok eta herri ardularitza dugunok, ahalegin bateratua egin beharko dugu irekiera horren berri emateko, erabiltzaileei itzultzeko eskatzeko eta irakurzaletasuna indartzeko.

Horretaz gain, zerbitzuak indartu behar dira. Goizegi da jakiteko zer gertatuko den ekonomiaren arloan, baina saiatuko gara teknologia berrien azpiegiturara laguntzetan aurreikusi genituen igoerak mantentzen. Liburu funtsak erosteko laguntzetan 2019an baino 100.000 euro gehiago jarri genituen aurtengo aurrekontuan eta liburuaren sektoreko erakundeekin beste 100.000 jarriko ditugula adostu dugu. eLiburutegiaren erabilerak hazkunde nabaria izan zuen 2019an urtean eta izugarritzko igoera martxoaren 13tik hona. Ezaguna egin da herritarren artean eta errealtate sendoa bilakatu liburutegiaren munduan. Normala da egoera bere onera itzultzen denean erabiltzaile kopuruak behera egitea, baina ezinbesteko tresna izango da hemendik aurrera.

Sarrera honen helburua 2019ko datuen berri ematea zen. Ezinbestekoa da 2020ko errealtateari erreferentzia egitea, baina ez nuke amaitu nahi iazko berri labur batzuk aipatu gabe. Lehenik eta behin, Liburutegi Sarea indartzen jarraitzen dugu, katalogo orokorra etengabe ari gara txukuntzen,


katalogo berriak sartu ditugu (Gasteizko Arte eta Ogibide Eskolako eta Arantzazuko Santutegikoa), eta beste hainbat liburutegirekin ere hartu-emanetan gaude sarea indartze eta aberaste aldera.

Sarea, sarri aipatu dugunez, Liburutegi Zerbitzuaren eta liburuzainen elkarlanaren emaitza da, eta bazen aspalditik liburuzainek eskatzen zuten neurri bat, Liburutegien Aholku Batzordea berritzea, alegia. Aldaketa iragarri duen testua aurtengo otsailean argitaratu den arren, iazko zeregina izan zen elkarte eta erakunde desberdinekin hitz egitea kide berriak aukeratzeko. Espero dezagun talde berria lagungarri izatea egoera berri hau hobeto kudeatzeko.

Bi urte igaro dira Euskadiko Liburutegi Digitala egitasmoa lantzen ari ginela iragarri genuenetik. Ez du ibilbide erraza izan, baina 2020an errealtate bilakatuko da. Euskariana jarri diogu izena. Lau hanka izango ditu. Lehenik eta behin, software espezifiko bat, bibliografia bildu, aberastu eta nazioarteko estandarretara egokitzeko aukera eskaintzen diguna. Bigarrena, Kultura Ondare Zuzendaritzak sortutako zerbitzu berria, dagoeneko lanean ari diren sei langilek osatutakoa. Hirugarrenik, Euskadin dokumentazio arloan nagusi diren erakunde publiko eta pribatuen lankidetzak. Azkenik, digitalizazioa bultzatzeko udaberriaren kaleratu nahi dugun 350.000 euroko laguntza-agindu berria; erakunde publiko (udal liburutegiak barne) zein pribatuei zuzenduko zaiena. Ahalegin handia egiten ari gara lan horretan eta emaitza parekoa izatea nahiko genuke.

Dakizuenek, hauteskundeak izango dira laster, eta ezin jakin nor izango duzuen solaskide hurrengo legealdian. Bitartean, udal liburutegiek, arduradunek eta langileek egiten duzuen lana goraiatu nahi dut eta sarri esaten dena, ondo egindakoa eskertu eta oker egindakoak barkatu.

Bermeon, 2020ko apirilaren 30a



Mikel Aizpuru Murua
Kultura Ondare Zuzendaria


ESTATISTIKAK

eLiburutegia




MAILEGUAK - HILABETEKA

Bilakaera 2015-2019




ERABILTZAILE BERRIAK

Bilakaera 2014-2019




ERABILTZAILE BERRIAK

Hileroko bilakaera 2016-2019





LIBURU BERRIAK

Bilakaera 2016-2019




Maileguak udalerriaren arabera



Ez dira azaltzen Azkuna Zentroko (2.823) eta Ignacio Aldecoa Kultur Etxeko (648) datuak.

Maileguak 1.000 biztanleko



Maileguak 1.000 biztanleko

5.000 eta 10.000 biztanle tarteko udalerriak




Maileguak 1.000 biztanleko

20.000 biztanletik gogorako udalerriak



MAILEGATUENAK



Las hijas del capitán
María Dueñas

324



Fakirraren ahotsa
Harkaitz Cano

284



Ezekiel
Jasone Osoro

244



Larunbatean Bukowskin
John Andueza

208



La desaparición de Stephanie Mailer
Joël Dicker

202



El silencio de la ciudad blanca
Eva García

190



Los señores del tiempo
Eva García

186



Una jaula de oro
Camilla Läckberg

181



Los ritos del agua
Eva García

178



612 €uro
Jon Arretxe

171



La bruja
Camilla Läckberg

167




Jenisjoplin
Uxue Alberdi

165

MAILEGATUENAK

Euskaraz



Fakirren
ahotsa
Harkaitz Cano

284



Ezekiel
Jasone Osoro

244



Larumbatean
Bukowskin
John Andueza

208



612
€uro
Jon Arretxe

171



Jenisjoplin
Uxue Alberdi

165



19 kamera
Jon Arretxe

163




100 metro
Ramón Saizarbitoria

152



Arotzaren
eskuak
Alberto Ladrón

138



Ezekiel nora
ezean
Jasone Osoro

119



Obabakoak
Bernardo Atxaga

119



Bihotz
handiegia
Eider Rodriguez

106




Amek ez
dute
Katixa Agirre

98



LIBURUTEGIAK



LIBURUKA:

irakurketaren sustapena

Donostia Kulturako

liburutegietan

Irakurketaren sustapena liburutegien ohiko zerbitzuetako bat da. Liburuzainen eginkizunen artean irakurzaletasuna bultzatzeko tresnak eta ekimenak ditugu, besteak beste, liburu gomendioak, irakurketa gidak, liburu aurkezpenak, ipuin kontaketa edo irakurketa taldeak. Donostia Kulturako liburutegietan publiko mota guztiei eskaintzen zaizkie irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak baina hala ere irakurmenaren inguruko kezka oso zabalduta dago, bereziki hezitzaileen artean.

Liburuka proiektuaren abiapuntua 9-10 urte bitarteko ikasleek duten irakurmen zifra baxua izan da. Hain zuzen, irakurmen gaitasuna aztertzen duen 2017ko PIRLS (Progress in International Reading Literacy Study) txostenean EAEko ikasleek 517 puntu lortu zituzten. Beste lurralde batzuetako datuekin konparatuz hobetzeko beharra nabarmena da eta arazoari aurre egiteko irakurketaren aldeko plangintzak sortu dira ikastetxeetan eta Hezkuntza Sailaren baitan. Plangintza horiek indartu nahian Donostia Kulturak irakurketa sustatzeko proiektu bat sortu zuen 2018ko udazkenean eta gaur egun indarrean dihardu.

Liburuka proiektuaren helburu nagusiak irakurketaren zaletasuna sustatzea eta irakurleak sortzea dira. Proiektu honen baitan hainbat ekimen daude eta guztien artean Irakurle Gazteak izenokoa azpimarratu nahi dut. Hain zuzen, ekimen honen xede nagusia Donostiako ikastetxeei liburu bildumak eskaintzea baita, ikasleak eskolako irakurketa orduetan kalitatezko liburuen aukera zabala izan dezaten; halaber, liburutegien eta ikastetxeen arteko harremanak sustatzen dira, eta, azkenik, liburuen erabilpena eta maileguak igotzen dira.

Irakurle Gazteak Programa

Irakurle Gazteak programa Donostiako ikasle gazteenei zuzenduta dago: Lehen Hezkuntzakoei (6-11 urte) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloari (12-13 urte). Programaren kudeaketa Liburutegi Nagusiaren Haur

Sailean dago zentralizatua, bertako liburuzainak dira ikastetxeekin harremanetan jartzen direnak programaren berri eman eta parte hartzera gonbidatuz. Esan beharra dago ikastetxeen inplikazioa oso ona izaten dela eta berehala betetzen direla aurreikusitako liburu kaxen banaketa txandak.

Aldi berean, liburuzainek ikastetxeei eskainiko zaizkien bibliografiak prestaketa lana egiten dute eta zerrendak gaurkotzeaz arduratzen dira. Horrez gain, denboraldi bakoitzeko liburuen ibilbidea amaitu ondoren, Haur Saileko liburuzainek programaren ebaluazioa eta datuen azterketa egiten dute, eta azkenik, ikastetxeek egindako liburu gomendioen hedapena egiten da sare sozialetan, Liburu Dantza blogean eta Twitterren.



Programa honen ardatz nagusia irakurketarako hautatzen diren liburuetan dago, liburuzainek kalitate oneko liburuak aukeratzen dituzte eta horretarako formakuntza berezia jasotzen dute. Urtean zehar gaiaren inguruko ikastaro eta mintegi berezietan parte hartzen dute.

Liburuen aukeraketa egin ahal izateko horretarako dauden baliabideak kontsultatzen dira: irakurketa arloko aldizkariak eta adituen gomendioak (besteak beste, Galtzagorri, Donostia Kultura, Canal Lector, OEPLI), literatur lehiaketetan sarituak, Donostiako liburuzainen gomendioak, edo irakurle gazteek egindakoak. Beste irizpide batzuk ere kontuan izaten dira kalitatezko liburuen hautaketa egiteko:

-Gaurkotasuna: azken hamar urteetan argitaratutako liburuak.

-Hizkuntza: Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratutako liburuak.

-Literatura generoen aniztasuna: narratiba, album ilustratuak, poesia, komikia, antzerkia eta ezagutza liburuak.

"Liburuka proiektuaren helburu nagusien artean daude irakurtzeko maitasuna sustatzea eta irakurle berriak sortzea".

Bestalde, zenbait liburu zerrendetatik kanpo uzten dira, hain zuzen azken urtean kaleratutako liburu berriak eta liburu mailegatuenak, komeni baita ezaugarri horietako argitalpenak liburutegietan denon eskuragarri egotea.

2019ko abenduaren 31n, 1800 liburu zenbatu ziren hautatuen zerrenda horietan eta liburuzainak etengabe ari dira zerrendak berritzen eta gaurkotzen.

Liburu kaxen banaketa

2018-2019 ikasturtean Irakurle Gazteak programa sareko hamar liburutegitan antolatu zen. Liburutegi bakoitzak proiektuan parte hartuko zuen hainbat ikastetxeren ardurazuen eta liburu gomendatuen bibliografiako liburuekin kaxak prestatu zituzten. Ikasturte osoan liburutegi bakoitzak hiru bidalketa egin zituen eta liburu kaxak bi hilabete eta erdirako mailegatu ziren, ikasleek irakurraldiak egiteko aukera izan zezaten. Guztira 110 kaxa banatu ziren, aldi bakoitzean, Donostia Kulturaren sareko 10 liburutegietatik eta mezulari zerbitzu bat kontratatu genuen kaxen banaketa eta jasotze lan guztiak egiteko. 8.450 liburu banatu ziren eta 7.800 ikasle ingururengana iritsi ziren. Guztira 20 ikastetxetako 325 ikasgeletan liburuak irakurri eta gozatzeko aukera izan zuten.

Azkenik, Donostia Kulturak bere esker ona adierazi nahi izan die irakurketaren sustapenean inplikatu diren irakasleei, eta gonbidatu bereziak izan ziren joan den abenduaren 19an, Antzoki Zaharrean Kirmen Uribe eta bere taldeak eskaini zuten *17 segundo* liburuan oinarritutako errezitaldi musikatuan.

Arantza Urkia
Zuzendaria - Liburutegia

Irakurle Gazteak programaren ondorioak guztiz emankorrak izan dira eta hala ikusten da jasotako emaitzetan:

- 2018ko udazkenean, I.G. programa martxan jarri zenetik, haur eta gazteentzeko liburuen maileguak nabarmen egin du gora Donostia Kulturako liburutegi guztietan. Horrela, 2017. urteko datuak (oraindik programa existitzen ez zenean) 2019arekin konparatzen baditugu, Haur Liburutegi Nagusian, esaterako, %21,33ko igoera izan da; Egia liburutegian, berriz, %54,17koa; eta Intxaurren liburutegian, %37,45koa.

Orokorrean, aldiz, sareko liburutegi guztiak kontutan hartuta, haur eta gazteen liburuen maileguen igoera %39,70ekoa izan da 2017tik 2019ra.

- Irakasleek egindako balorazioen emaitza altua izan da, eta batez beste, 10etik 8,31 puntura iritsi da.

Irakurzaletasunaren aldeko egoera sustatu da:

- Irakasleek egindako balorazioen emaitza altua izan da, eta batez beste, 10etik 8,31 puntura iritsi da.

Irakurzaletasunaren aldeko egoera sustatu da:

- Hiriko ikastetxeen eta liburutegien arteko harremanak zabaldu eta indartu egin dira helburu bakar batekin, irakurzaletasuna bultzatzea.

- Ikastetxeek jaso duten zerbitzu berria erabat dohainik eta lan gehigarririk gabekoa izan da.

- Jasotako liburu-sortei esker, ikastetxeek denbora gehiago eskaini diote irakurketari eta ikasleek mota askotariko liburu berriak ezagutzeko aukera izan dute. Horrek guztiak irakurtzera motibatzen du.

- Osatu diren kalitatezko bibliografiak oso tresna baliagarriak dira liburutegietako langileentzat.

- Ikasleek egindako gomendioak astero igotzen dira Liburu Dantza blogera eta harrera ona izaten dute irakurleen artean.



EIBARKO LIBURUTEGIAK

hainbat lankidetzeta-programa ditu
ikastetxeekin irakurzaletasuna bultzatzeko

Lankidetzeta horietan bisita gidatuak egiten dira, erabiltzaileak trebatu, liburu sorten aukeraketa eta maileguen bidez irakurzaletasuna bultzatu, eta gida bibliografikoak landu

Eibarko Juan San Martin Udal Liburutegiak hainbat programa garatu ditu, 'Liburutegi ibiltaria' izen orokorrearekin, herriko ikastetxeetako liburutegiekin elkarlanean, irakurtzeko gaitasuna bultzatzeko eta irakurzaletasuna sustatzeko xedez. 2018-2019 ikasturtearen hasieran, Liburutegiak bilera batzuetarako deia egin zien ikastetxeetako zuzendaritzeari, eskaintzen dituen lan-ildoak azalduz, hala, ikastetxe bakoitzak Irakurketa Plan bat egiten eta garatzen laguntzeko.

Ekimen horren ondorioz, 2018ko irailetik 2019ko abendura bitartean, Eibarko zazpi ikastetxeetatik seik Juan San Martin Liburutegiaren ekimenari erantzun diote. Liburutegiak eskolekin lankidetzan dihardu hainbat arlotan: bisita gidatuak, erabiltzaileen trebakuntza, irakurzaletasuna bultzatzea liburu sorten aukeraketa eta maileguen bidez eta gida bibliografikoak lantzea.

Juan San Martin Liburutegiak diseinatutako programa bat da liburutegia erabiltzen eta informazioa bilatzen ikasteko, xede duena herriko ikastetxeekin lankidetzeta iraunkor bat izatea, informazioaren gestioan hezteko zereginean lan egiteko. Programa Eibarko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei zuzenduta dago.

Jarduera-blokeetan egituratuta dago, hezkuntza-ziklo bakoitzaren arabera; bloke bakoitza adin-talde baterako sortu da, edukia ikasleen adinera egokituz. Edukiak mailaz maila osatzen dira, ikasleek liburutegiaren erabilerari buruzko ezagutzetan aurrera egin dezaten eta informazioa bilatzeko trebetasunak eskura ditzaten.



Helburuak erdietsi

Programarekin lortu nahi diren helburuak hauexek dira: Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak eta horiek erabiltzeko modua ezagutzea; liburuak eta gainerako materialak sailkatzeko sistema ezagutzea; liburutegian orientatzen ikastea, errotuluen eta seinaleen laguntzaz; eta katalogoa erabiltzen ikastea. Gainera, informazio-iturriak ezagutzen dira, bilaketa-prozesurako gaitzen da eta Liburutegiaren funtzionamendu orokorra ezagutzen da.

'Liburutegi ibiltaria' irakurzaletasuna sustatzeko lankidetzeta-programari dagokionez, Udal Liburutegiak laguntza-zerbitzua eskaintzen die eskola-liburutegiei baliabideak batu eta zerbitzuak hobetzeko ahaleginean; izan ere, kasu batzue-

tan prekarietate-egoeran daude eta ardurapeko langilerik gabe. Hala, Juan San Martin Liburutegiaren ekarpen nagusia eskatutako liburuak eskaintzea da, izan gai jakin batekoak izan liburutegiko langileek hezkuntza-zikloetara egokitutako aukeraketa bat. Mailegu-zerbitzu hori aldatuz joan da, harik eta 2019an 1.590 mailegu izatera iritsi arte.

Halaber, Eibarko Liburutegiak eta Euskara Sailak bultzatutako jardueretan, aipatu behar da bularretik Mintzora programa, xede duena 0 eta 8 urte bitarteko haurren irakurketa-ohiturak sustatzea, gurasoekin eta prestatzaileekin elkarlanean arituz ingurune natural batean, hau da, etxean, eskolan eta liburutegian. Proiektuan parte hartzen duten Eibarko ikaste-

*"2016an Bularretik
Mintzora programa hasi
zenetik, liburutegi
txartela duten
adingabeen kopurua
nabarmen handitu da".*

txeetako irakasleek "Galtzagorri" Haur eta Gazte Literatura Elkarteko adituen prestakuntza jaso dute .

Liburutegiko leku nabarmen batean dagoen bibliografia hautatu batek etxeko eta eskolako istorioak entzuten laguntzen die txikienei, eta, bide batez, Liburutegia txikitatik ezagutzen dute. Hain zuzen, 2016an programa hasi zenetik gaurdaino, nabarmen igo da Liburutegiko txartela duten adingabeen kopurua.

Udal liburutegiko arduradunen esanetan, "horrelako programak elkarlanean aurrera eramateak bilduma bibliografikoaren erabilera areagotzen du, baita liburutegiko bazkide kopurua eta liburutegia topagune gisa erabiltzea ere".

lazko urte amaieran eman zitzaizen forma eta izena programa hauei; "lehendik egiten genituen, baina ez zeuden normalizatuta. Hemendik aurrera, espero dugu lankidetzak hauekin jarraitzea, familien, ikastetxeen eta liburutegien xedea betetzeko: irakurtzeko gaitasuna bultzatzea eta irakurzaletasuna sustatzea".

Eva Alberdi
Eibarko liburutegia



VILLAMONTEKO LIBURUTEGIA, GETXO

Irakurle apartak

Egun batzuetan denbora gelditzea nahi duzu, erlojuak aurrera ez egitea, momentua luzatzea eta sortu den atmosferaz gozatzen jarraitzea. Une magiko horietako bat 2020ko urtarrilaren 14an bizi izan genuen Anabel Regaladok eta biok Villamonteko (Getxo) liburutegian, bi bazkide zoragarriekin: Amerika (91 urte) eta Jose Ramon (78).

"Irakurle apartak" izateagatik aukeratu dituztela esaten diet, eta eskertzen diet beren pasioari buruz hitz egitera hurbildu izana: irakurketari eta liburutegiei buruz.

Biek aipatzen dute betidanik irakurle handiak izan direla, Amerikaren kasuan, bere osaba batek erakutsi ziola irakurtzen eta hortik datorrela bere zaletasuna. Jose Ramonen kasuan, txikitatik irakurtzeko zaletasun izugarria duela dio, eta etxea, trastelekua, garajea liburuz beteta dituela. Eta irakurketaz hitz egitean begiak argitzen zaizkie, eta ezinezkoa da ez kutsatzea beren gogo, ilusio horrekin.

Liburutegiko erabiltzaile leialak

Irakurzaletasun horrek liburutegira hurbildu zituen, eta orduetik erabiltzaile leialak dira. Jose Ramonek kontatu digunez, liburutegira joan zen lehen aldia duela urte asko izan zen, Urgullen zegoenean joaten zen. Egun batean sartu zen eta ez dio etortzeari utzi. Harentzat paradisua da: liburuak hartu, itzuli, berrirakurri.

Amerika eskulanak egitera joaten zen liburutegira, eta berarentzat errebelazio bat izan zen. Asko gustatzen zaio irakurtzea, eta berarentzat oso pozgarria da. Gainera, liburutegian literatura ikasgaiak jasotzen ditu duela 20 urtetik. Dioenez, txikia zarenean ez duzu irakurtzen, baizik eta "bizi", "bizi" egiten duzu irakurtzen duzuna. "Liburu batzuk bizi dituzu, eta horiek ikaragarriak dira; bitxia da nola heltzen diozun irakurketari. Beste batzuek, ordea, ez dizute azala zeharkatzen".

Ezohiko irakurle horiek liburutegira joan aurretik ere bazuten irakurtzeko zaletasuna, baina hari esker beste irakurketa batzuk aurkitu dituzte, beste egile batzuk, beste estilo batzuk... Biek nobedadeak irakurtzen dituzte, klasikoak, batez ere eleberria, baina baita antzerkia ere. Amerika gustatu zaizkion izenburu batzuk gomendatzera animatzen da:

"Intemperie" (Jesus Carrasco), "La solterona" (Edith Wharton), "La chica de los siete nombres" (Hyeonsoo Lee, David John). Jose Ramonek, ordea, hainbeste "plater" eta hain on daudela dio ... nola gomendatu bat askoren artean. Dickens, Walter Scott, errusiarrak ... bezalako egileak gustatzen zaizkio.

Bibliotekariaren adeitasuna

Irakurtzeko grina gainezka nabaritzen zaie, eta pasio hori transmititu diete bai seme-alabei bai bilobei. Liburutegi publikoak ere oso paper garrantzitsua jokatu du haien bizitzetan. Horietatik gehien gustatzen zaiona, Jose Ramonen arabera, liburuak hartzeko duten erraztasuna da, irakurketak aurkitzea. Liburuzainen adeitasuna azpimarratzekoa da. Zerbitzu ona eta doakoa da. Amerikak kalitatea nabarmentzen du, ematen dizkioten erraztasunak, liburuak leku guztietan bilatzen dizkiote. Profesionalek oso ondo tratatzen dituztela sentitzen dute, eta oso positiboki baloratzen dute giza faktorea.

Bientzat, liburutegiak ematen duen zerbitzua ezinbestekoa da; modu horretan, ez dute euren bizitza bera gabe ulertzen. Jose Ramonek dio, zer egingo nuke liburutegirik gabe?, nora joango nintzateke? Amerikarentzat ere oso zerbitzu garrantzitsua da, eta aipatzen du bere ekonomiak ez liokeela utziko hainbeste liburu irakurtzen.

Ezohiko irakurle horiekin topaketa amaitu aurretik, Amerikak dio ilusio handia egin diola harekin kontatzeak. Haien jada bizitza aktibotik kanpo daudela, eskerri asko beraiekin kontatzeagatik. Ezinbestekoa da bihotza apur bat uzurtzea, bere iritzia eskatzeko keinu txikiarekin esker ona hain handia dela ikustean.

Patricia Acebes
Liburutegi Zerbitzua



Amerika: "Bizi dituzun liburuak daude, eta horiek izugarriak dira. Beste batzuek, ordea, ez dizute azala zeharkatzen"



Jose Ramon: "Liburutegia paradisua da: liburuak hartu, itzuli, berrirakurri ..."

LEIOAKO UDAL LIBURUTEGIA:

LAM eta irakurketa-klubak



2004a urte garrantzitsua izan zen Leioako Udal Liburutegiarentzat, gure erakundearentzat oso esanguratsuak izan ziren bi aldaketetan murgilduta egon ginelako. Alde batetik, urte hartan Sakonetako liburutegi txikitik Kultur Leioa berrira abiatu ginen, liburutegi moderno eta funtzionala sortuz, eta hori erronka handia izan zen, horrek zekarren aldaketa guztiarengatik. Bestalde, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko lehengo pausoetan hasi zen, besteak beste, Sarearen hasierako enbrioi-taldean.

Proiektu hori liburutegien arteko lankidetzaren filosofiarekin sortu zen, muin gogorrean. Gaur egun, proiektu finkatua da, eta Euskadiko liburutegi publiko ia guztiek parte hartzea du elementu integratzaile gisa. Liburutegi horiek ahaleginak bateratzeko espirituarekin jarraitzen dute, zerbitzu batzuk lankidetzan emateko asmoz.

Liburutegien Arteko Mailegu zerbitzua

Txartel bakarra, katalogazio partekatua, eliburutegia plataformaren bidezko online mailegua eta abar alde batera utzita, gure erabiltzaileek gehien baloratzen dituzten zerbitzuetako bat Liburutegien Arteko Mailegua (LAM) da, Euskadiko erabiltzaile guztien eskura dagoen katalogo bakar eta zabala – Milioi bat titulu baino gehiagorekin – eskaintzen duena. Zerbitzu hori liburutegi publikoetako profesional guztien ahalegina da, eta, horren ondorioz, 2019an 120.000 mailegu baino gehiago eman genituen EISP osoan.

Mailegu mota horretatik, Kultur Leioako Liburutegiak ia 5000 mailegu egiten dizkie urtean Sareko beste liburutegiei, hau da, gure liburutegian urtean egindako mailegu osoaren



Euskadiko Irakurketa Klubak Oviedon

seirena, hain zuzen ere. Liburutegien arteko lankidetzak ahalegin handia eskatzen badu ere, kontuan hartu behar da erabilera horrek zeharka balioa ematen diela gure funts eta zerbitzu onei.

Irakurketa klubetarako 400 liburu-sorta

Liburutegien arteko mailegua ere oso garrantzitsua da, liburutegiko hiru irakurketa klubek eta kanpoko beste biek (Gaude Irakurketa Kluba eta Leioako HHlkoa) behar adina ale izan ditzaten, eta, horrela, jarduera ahalik eta modu dinamikoenean egin dadin. Komeni da eranstea ia 400 liburu-sorta daudela, bai literaturari buruzkoak, bai irakurketa errazari buruzkoak. Horiek ere modu kooperatiboan eta Liburutegi

Zerbitzuaren eta liburutegi talde baten artean koordinatuta kudeatzen dira, eta horien artean badago gurea.

Irakurketa-klubek lotura handia sortzen dute Leioako irakurle-komunitatearen eta Euskadiko beste liburutegi batzuen artean. Duela bost bat urtetik hona, Liburutegiko Literaturaren Irakurketa Klubetako ordezkari batzuk urtero parte hartzen hasi dira estatu mailan, eta urrian Oviedora 2000 irakurle baino gehiago eraman dituzte, ehunka irakurle-klubetatik, Asturiasko Literaturaren Printzesa Saria irabazi duen idazlearekin topo egiteko. Jarduera horrekin batera, Ermua, Errenteria, Donostia eta Iurretako liburutegietako Euskadiko irakurketa-klubak daude. Goizeko ordu txikietan etxera


itzultzeak esfortzua eta nekea dakarren arren, taldea pozik dago esperientziarekin eta Euskadiko liburutegietako irakurketa-klubak harremanetan jartzen dituen jarduerari jarraipena emateko gogoz.

Klubetan berriena, Adimen Emozionalarena, irakurle-komunitatearen beraren ekimenaren emaitza da. Erabiltzaile (psikologo) batek dinamizatuta, bere helburua da psikologiko liburuen irakurketa sustatzea eta, horrela, pertsonen ongizate emozionalari laguntzea. Pentsatzen dugunaren eta sentitzen dugunaren arteko erlazio zuzena dago, beraz klubaren azken helburua ondo pentsatzen ikastea da, ondo sentitzeko.

Irakurketa-klubek erakusten dute gure udalerrian irakurketa eta partaidetza komunitatea sortzeko moduaren adibide ona direla, eta sare sozialak erabiltzen dituztela jarduera dinamizatzeke eta, horrela, irakurketa- eta hausnarketa-proposamenekin aberasten dira.

Goyo Layana
Leioako Udal Liburutegia

Irakurketa-klubek lotura handia sortzen dute Leioako irakurle-komunitatearen eta Euskadiko beste liburutegi batzuen artean.



LANTZIEGOKO LIBURUTEGIA,

topagunea

Izenburuak oso argi esaten du, liburutegia topagune eta erreferentzia da herrian, eta bertan, astelehenetik ostiralera, herritarrak lagunekin geratzen dira, gurasoak beste guraso batzuekin, kizgunearen erabiltzaileak ordenagailuak erabiltzeko etortzen dira, eta erabiltzaileak, oro har, instalazioak erabiltzeko. Jende guztia buelta bat ematera dator, herriko plazara joatea bezala da, baina estalpean.

Lantziegoko liburutegia 1983an hasi zen lanean, ikastolako gela batean. Garai hartan, eta denbora luzez, herriko gazteak txandaka ibiltzen ziren liburutegia ireki eta mantentzeko, eta hasieratik izan da herritar gehienek topagunea.

Udalak duela 10 urte eraikin berria egitea erabaki zuen: gizarte zentroa. Eta liburutegia bigarren solairuan kokatua dago; 150 metro inguruko areto diafanoa da. Eraikinak mota guztietako jarduerak egiten diren bi solairu ditu. Liburutegia astelehen, asteazken eta ostiraletan irekitzen da 17:00etatik 20:00etara eta Pilar Marteles Ripak-rik neuk- kudeatzen du.

Liburuzaina, ama, irakaslea, psikologoa eta laguna.

Lanean hasi nintzenetik, duela 19 urte, argi nuen nire lana ez zela liburuzain batena izango, eta, egia esan, denetarik egitea tokatu zait: liburuzaina, ama, irakaslea, psikologoa, laguna, behar izan den edozer, eta gainera, pozez zorutzen!

Eskaintzen dugun zerbitzua, hein handi batean, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoaren parte izateari esker da; liburutegi txikiak Sareari esker hornitzen gara, gaur egun ematen dugun zerbitzua hain zabala izan dadin. Beti eguneratuta egoteko Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak ikastaroak



ematen dizkigu urtero eta horrela birziklatu egin gaitzeko, eta gainera, beste liburutegietako lankideak ikusi eta ezagutu.

Hainbat dira gizarte zentroaren jarduerak eta eskaintzen duen erabilera. Trikitixa eskolak astelehen arratsaldetan ematen dira. Pilates astearte arratsaldetan. Robotika ostegun arratsaldetan. Dietista ostiraletan 17:00etatik 19:00etara, eta 19:00etan etortzen da abesbatza entseatzera. Goizetan, Gurutze Gorriak ikastaroak antolatzen ditu etorkinentzat. Larunbat arratsaldetan ludoteka izaten dugu. Kasikojolabubilla gazteen elkarteak antolatzen duen zinema ere badago, eta sortzen direnean: ikastaroak, hitzaldiak, aurkezpenak, etab. Ikusiko duzuenek, Lantziego oso herri txikia da, 700 biztanle ingurukoa, baina mugimendua duena eta liburutegia duena, oso baliagarria gainera bertara doazen eta bertako zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonentzat.

Pilar Marteles Ripa
Lantziegoko liburutegia



ESKORIATZAKO UDAL BIBLIOTEKA

“Kataia eten barik – Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu”



Bazen behin, herri txiki bateko biblioteka. Bertako langile-bitartekariak kezkatuta zeuden, XX. mendean urrezko aroa bizi izan ondoren, biblioteka egundoko eraldaketa-prozesu azkarra jasaten ari zelako, batik bat IKTak agertu zirenetik. Informazioa eskuratzeko modua ere aldatzen ari zen, eta horrek gizarte-egituran bere eragina zuen.

Zalantzarik gabe, biblioteka eraldatu beharra dago, zioten bibliotekariak, IKTek erraztu egingo dutelako erabiltzaileen arteko konexioa eta harremana. Antza denez, entzunda zeukaten metamorfosi hori saihestezina zela.

Horrela bada, garai berrietara egokitze horretan, beharrezkotzat jotzen zuten hausnarketa eta ideia berri guztiak partekatzea, batik bat egitasmo eta irtenbide praktikoak aurkitzeko. Baina zalantza handiak zituzten: “Ezagutzaren transmisioa aldatzen ari den garai hauetan, mundu digitalera begira geratu beharko ginatke bakarrik? Edo kultura-transmisioa eta informazioa emateko beste bide batzuk ere baliatu beharko genituzke?”

Eta buruhauste horietan zebiltzala, orain dela sei urte, Amaia izena zuen hamaika urteko neskatila bat hurreratu zitzairen bibliotekara, gure bibliotekara, galdezka:

- Non begiratu dezaket Espainiako gerra zibilaren ostean Euskal Herrian jendea nola bizi zen jakiteko?



Neskatilari begira geratu nintzen eta galdetu nion:

- Zure aitona-amonei galdetu al diezu?
- Ez, normalean igandeetan, euren etxera bazkaltzera joaten garenean, ikusten ditut bakarrik.

Erantzun horrek hausnartzeko bidea eman zigun.

Batzuetan, hain da indartsua teknologia berrien presentzia gure bizitzan, ezen ez baikara konturatzen badirela beste transmisio-modu batzuk, askoz ere gertuagoak eta erraza-goak izanik, ikusi ere egiten ez ditugunak.

Antzeko zerbait gertatu zitzaion ipuin hartako errege handiari ere: *Errege batek bi zapelatz kume lumatu berri hartu zituen oparitan eta aztore-irakasleari eman zizkion ehizarako presta*



zitzan. Bi hilabete igarota, aztore-irakasleak jakinarazi zion erregeari, belatz batek primeran egiten zuela hegan, baina bestea ez zela lehen egunean utzi zuen adarretik mugitzen. Erregeak deitu zituen hainbat albaiteko eta aditu gauza erremediatzeko, baina ezin izan zuen inork ezer egin. Gorteko jendea ere eskatu zion laguntza, baina alferrik. Azken baliabide gisa, herri osoari esan zion sari handia emango ziola zapelatz hegan jarrarazten zuenari. Hurrengo egunean non ikusten dituen bi zapelatzak zitzu bizian hegan lorategian. Erregeak berehala bere aurrera ekarrarazi zuen miraria egin zuena, eta galdetu zion: - Zuk eginarazi diozu hegan? Nola lortu duzu? Aztia zara edo ahalmen handiren bat duzu? Eta nekazariak, erregearen aurrean zerbait lotsaturik, erantzun zion: - Oso erraza izan zen, jauna. Jarrita zegoen zuhaitz adarra moztu



nion, hegoak astindu behar izan zituen eta hegan egin zuen.

Noizbehinka, konponbidea hain gertu daukagu, ez dugula ikusten. Amaiari ere gauza bera gertatzen zitzaion, bere galderaren erantzuna ez zuela inon aurkituko bere etxean baino hobeto.

Amaiaren galderak, gure familietako belaunaldien arteko harremana gero eta txikiagoa zela erakutsi zigun, eta pentsamendu horrek egitasmo berri bat martxan jartzera bultzatu gintuen: Kataia eten barik: ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu.

Egitasmo berriaren helburuak garbi genituen:

-Generazio desberdinak elkarrengana hurbiltzea: nagusien bizimodua ezagutzea, nagusien euskalki aberatsa entzutea...

-Aitona-amonen bizitza kontakizunen bidez herriaren eta herrien historia ezagutzea.

-Aitona-amonak dituzten baloreak bultzatzea.

-Biblioteka herriko eskolekin harremanetan jartzea.

Eta behin helburuak jarrita, kate-begiak elkartzea besterik ez zitzaigun falta. Gure kate-begiak belaunaldi desberdinak eta hizkuntza desberdinak izango ziren, aitona-amonak eta gazteak; eta kate-begi horiek elkartuz sortuko genuen Kataia (katea).

Asmo horrekin, harremanetan jarri ginen eskolekin, lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleek euren aitona-amonen biografia lehiaketan parte hartu zezaten. Erantzuna ezin hobea izan zen.

Urte hartako apirileko lehenengo astean ekarri zigun Amaiak bere amonaren biografia: "Maria naiz. Goizean goiz hasten zen baserriko bizitza; gosaltzeko, esne-zopak, artoa eta esnea edo morokila esnearekin izaten nuen. Goiz batzuetan, eskolara joan aurretik, herrira jaistea tokatzen zitzaidan astoarekin esnea banatzera. Gosaldu ostean, zortzietarako Mendiolako mezara joan behar izaten nintzen, meza ostean azkar-azkar eskolara..."

Eta horretan jarraitzen dugu...

Iñaki Agiriano
Eskoriatzako liburutegia



SAREA ZIFRATAN

Mailegu kopuruak gora egin du EIPSen

Nahiz eta garai hauetan maileguaren joera beheranzkoa izan liburutegien alorrean, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean gorakada aurkezten dute 2019ko datuek alor horretan.

2018an, 2.623.361 mailegu burutu baziren ere, 2019an, 2.744.226 egin dira (120.000 baino gehiagoko igoera).

EIPSen erabiltzaile kopurua ere handituz joan da urtez-urte. Horrela, 41.038 pertsona berrik eman du bere izena 2019an Euskadiko liburutegietan. Hortaz, historian lehen aldiz gainditu da milioia; egun, 1.036.217 erabiltzailek osatzen dute Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea.


Hala ere, deigarria da horietatik bakarrik laurdena gutxi gorabehera aktibo izatea. Hau da, 2019an, 238.344 bazkidek soilik egin dute gutxienez mailegu bat.

Gainera, EIPSen hain ongi baloratuta dagoen Liburutegien Arteko Maileguak (LAM) ere igoera nabarmena izan du. 2018ko ekitaldian 96.959 eskaera egin ziren; 2019an, berriz, 120.300 egin dira. Aurreko ekitaldian izandako igoera (10.000) deigarria izan bazen ere, azken ekitaldikoa are eta gehiago izan da: 23.000tik gora mailegu gehiago burutu dira.

Bestalde, 27.274 izenburu gehitu dira katalogora. Horren ondorioz, 1.211.681 izenburuk osatzen dute EIPSeko katalogoa.


Halaber, 2019an, alta eman zaie 244.538 aleri EIPSen. Orotara, beraz, 6.913.643 ale erregistratu dira sarea sortuz geroztik. Ildo berean, denbora tarte horretan, 720.000 ale xahutu dira, arrazoi ezberdinak direla medio.

OPACean egin diren bilaketei dagokionez, aurreko ekitaldian baino ia 10.000 gehiago egin dira: 2.968.492tik 2.978.100era pasatu dira, alegia.



MAILEGATUENAK...

3.347




Los señores del tiempo

2.575




El silencio de la ciudad blanca

2.508



Las hijas del capitán

2.137




Naruto Uzumaki

1.677



Dragonball

1.142




Frío fatal

811



Carmen y Lola

802



Campeones

572



El reino

472



Los futbolísimos

428




Érase una vez el cuerpo humano

399




Érase una vez el cuerpo humano

127




El mal querer

52




Ni descanso ni paz

46



Cerrando puntos suspensivos

18




Frozen El reino del hielo

9



Cuentos animalantes

8



A mis niños de 30 años

MAILEGATUENAK EUSKARAZ...

889

Fakirren ahotsa

Book icon, People icon, Basque flag icon

856

Amek ez dute

Book icon, People icon, Basque flag icon

750

Basa

Book icon, People icon, Basque flag icon

699

Futboleroak

Book icon, People icon, Basque flag icon

683

Onin eta altxorraren uhartea

Book icon, People icon, Basque flag icon

636

Onin eta basoko misterioa

Book icon, People icon, Basque flag icon

66

Errementari

Video icon, People icon, Basque flag icon

66

Handia

Video icon, People icon, Basque flag icon

63

Dantza

Video icon, People icon, Basque flag icon

1.108

Triki, traka, tron

Video icon, People icon, Basque flag icon

531

Sentitu, pensatu, ekin!

Video icon, People icon, Basque flag icon

460

Amalur

Video icon, People icon, Basque flag icon

66

Azken indioak

Audio icon, People icon, Basque flag icon

63

Gure oroitzapenak

Audio icon, People icon, Basque flag icon

59

Xilema

Audio icon, People icon, Basque flag icon

144

Musua

Audio icon, People icon, Basque flag icon

104

Go!azen 4.0

Audio icon, People icon, Basque flag icon

97

Tipi-tapa korrika

Audio icon, People icon, Basque flag icon

BI HITZETAN

Euskadiko Liburutegia

2020an zerbitzu berri bat jarri da martxan Kultura eta Hizkuntza Politikako Saileko Kultura Ondarearen zuzendaritzaren barruan.

Euskadiko Liburutegia da, eta bere eginkizuna, funtsean, Euskadiko Liburutegi Digitala eta Euskadiko Lege Gordailua kudeatzea izango da.

Bere jarduera-arloak honakoak izango dira: Euskadiko Liburutegi Digitalak osatzen dituzten edukiei buruzko informazioa kudeatzea, bere jarduera-eremuko edukien digitalizazioa koordinatzea eta bultzatzea, Euskadiko Liburutegi Digitalaren ataria kudeatzea eta Lege Gordailua kudeatzea.

Sei langilek osatuko dute zerbitzu berria: zerbitzu buru bat, artxiboetako, liburutegietako eta dokumentazio zentroetako bi teknikari, informatikari bi eta administrari bat.

Euskadiko Liburutegi Digitalak atari eta software propio izango ditu, zeinetan euskal ondare bibliografikoa bilduko den, eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko Liburutegi Zerbitzuarekin batera lanean arituko da.

Gai elebidunen fitxategia

2019an, Liburutegi Zerbitzuak AUBI fitxategian alta emandako autoritateak zatikatzeko proiektuari ekin zion. Zatikatzeko-proiektuaren helburua gai-autoritateen erregistroak (T150) abiatzea zen, eta abiaburu ziren ia 210.000 terminoak berrikusi eta arazteko fase baten ondoren, hiru laurden baino gehiago araztu dira.

Eraitza horien aurrean eta zatikatzeko-prozesuan katalogoko CATAre datu-basean pertsona-autoritateak (T100) ere zatitu direla ikusita, 2020rako gure helburua izango da gai-autoritateak (T150) garbitzen, itzultzen eta aberasten jarraitzeaz gain (T100) autoritateen arazketari AUTO datu-basean ekitea eta baita gai-azpisarrera guztiak araztea ere (T18X).



Liburuaren Nazioarteko Egunaren kartela

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak, apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko eguna ospatu zuen, azken urteetan egiten ari zenaren oso bestelako modu batean. Ospakizun berezi horretarako, liburutegiek, Maite Gurrutxaga ilustratzailearen honako kartela zabaldu zuten sare sozialetan. Horretan, irakurketari esker, "etxetik atera gabe deskubritu daitezkeen beste munduak" badaudela islatzen da.





LIBURUTEGIAK 2019

© 2020

Eusko Jaularitzako Liburutegi Zerbitzuak
argitaratua.

Posta elektronikoa

liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

LG: SS 1509-2005